

## AZKAINGO LANTOAREN YARAIPENA

—x—

MUNA (Sumario).—I. A ta e artizkiak izan aditzaren irabiamentean (conjugazionean).—II. Izan-en adizki batzuetan bizi diren sarkizunak (epentesis).—III. Izan-en imperativo ta subjuntivoan bizi zirenak.—IV. GERO ta GEROKO GERO ren alde edo banafasuntxo bat.—V. Lapurdiko idazle zafenak aginpeneko (imperativoko) adizkietan.—VI. Axulafeak biz adizkiari emandako zentzun bitxia.—VII. Epentesis edo sarkizun au subjuntivoan.—VIII. Izan aditzaren beste adizki batzuk.—IX. Bizkaierazko gintzazan ta zintzazan.—X. Izan en adizkiak aufetik ba- eta atzetik -te naiz -de dituztela.—XI. Gure egunotako idazle batzuen adizki zenbait.—XII. A ta a bizkaieraz ez tira beii ea.

I. Lengo ilean orainarte ongi aztertu bageko bi sarkizun (epentesis) deritzaion lantxo bat agertu nuen bigaŕen batzarŕeko gaitzat. Bizkaieraz a bezala Oihenartek bi aditzetan e erabili zuela erakutsi nizuen: Bizkaiko idazle zarŕak *noealā* ta *neroeala*, Mauleko atsofitz-biltzaile ta olerkari argitsuak *nohela* ta *neroela*. Oihenart baino lentxoagoko idazle napar zuberotar Sauguis-ek etzuen e ori aintzat artu. 109-gaŕen esakunean dio: *danzatu nahi eztena, eztohalā danzala* quien no quiera bailar no vaya al baile.

Gainera Oihenartek, bizkaieraz bezala, *eraman*-en orde z maiz *eroan* erabili zuen eta *ioan* adizari guk eman oi diogun zentzun «soler» noiztanka eman zion. Ona bere esakune batzuk: *seroretara zautan gogoa, ezteietara aizeak* NAROA (530-gaŕena), *neska hartzen ari dena saldu* DOA=suele venderse (332-gaŕena), *bethegiz zoŕoa lehertu* DOA (511), *burla gaxtoa bere sor-lekura itzull* DOA (365), *urhe-gakoaz athe guziak ireki* DOAZ (466). Urkijok, *Revista Internacional*-en II-677 *Los refranes vascos de Sauguis* izentzat duen lan edefean, Oihenarten atsofitz batzuk aipatuŕ, au dio: «a mf me parecerā mās verosīmil, mientras nō me aduzcan pruebas terminantes en contrario, que los mencionados

refranes vizcainos le fueran enviados por algún colaborador»... Berdin uste dut nik ere, au gaineratuz : Oihenartek bizkaierazko adizki oriek osorik argitaratuafen, atsofitz bakoitzaren beste itzak, geien geienak beintzat, bizkai-kutsua kenduz agertu zituela. Esakune orietako itz auek ez tira bizkaierazkoak: *zautan, ezteietara, ari dena, itzuli, urhe-gakoa ta ireki*. Sauguis-ek ere, bizkai-adizkirik ezafen, *a* artizkia (epentetiko) euskalki onetan bezala erabili zuen. Bere efan zahafetakoak dira adizki auek : 1.<sup>a</sup> *egur dagianak* el que hace leña (152)—Oihenartek efan zahaf au, beste asko ta asko bezala, atsofitzurik, onela eman zigun : *egura dagienak* (126); 2.<sup>a</sup> *Orzaizen ediren zuian zofiak* (125); 3.<sup>a</sup> *Albiriste eztaianak hobe uste* (200); 4.<sup>a</sup> *Gaixto gaixto ninzan, berdin bizi ninzan* (191); 5.<sup>a</sup> *Hortzik eztuanak, eztañi* (6); 6.<sup>a</sup> *Eztuan oro emaile hon* (23)—Oihenartek onela atsofitzu zuen efan zahaf au : *deus eztuena, balu, emaile handi*; 7.<sup>a</sup> *Haurik eztuanak ez haur-abegirik* (58); Oihenartek (497) *haurik eztuena ez haur minik ere* (218); 8.<sup>a</sup> *Duianak, azer biper* (18) el que tiene (echa, se entiendo) a las berzas pimienta. *Azer* erderazko dativo plural da : a las berzas. Oihenartek bere 120-gafen atsofitzean *duenak, azer biper* dio; 9.<sup>a</sup> *zelarik nahi eztuaniari eman bekio basto* (¿ezotezuen berak *basto* idatzi? (152); Oihenartek 428 gafen atsofitzean : *zela nahi eztuaniari eman bekio arbalda*. 10.<sup>a</sup> Sauguis'ek 154-gafenean *ogia labarazioan*, Oihenartek 341-gafenean *ogia laberatzean*. Bizkaieraz *laba* da erderazko horna, beste euskalkietan *labe*. ¿Nondikoa otezen Sauguisen lanak duen Bizkaiera-kutsu au?

Ni orain nagoen bezala arkitzean, euskalari geienak, garmuñ-artean erdera ta euskera dituela, Bidasoatik ononkoak badira *eztago esan bearik* idatzi oi dute, erderazko «no hay necesidad de decirlo»; beste aldekoak direnean, *efan gabe doa*, frantzesen «ça va sans dire». Nik ere idatzi dezadan : *eztago esan beafik* edo efan gabe *doa* emen aipaturiko efan zahar ta atsofitzak Urkijoren lanean irakufi ditudala.

II. Lengo ilean irakufitako lanean orain ilak diren adizki batzuk agertu nituen, bizkaieraz *a* eta Bayonaldeko euskalkian *e* sartizkitzat zutenak. *A* ta *e* auek *izan* aditzean bizi dira orain ere, azkenean *a* duten adizkietan : *gara, zara ta dira*. Adizki auek beinola, gure idazle zañenen egunetan, ez bakafik indikatiboan orain bezala, baita imperativo ta subjuntiboan ere artzen zituzten bi epentetiko oriek. Ona emen gertari

batzuk. Axularenak dira lenen erakutsiko ditudanok : *adiskiden artean* GARENEAN *laso* GARA (GERO 1.<sup>a</sup> 28-3), *oraiño bideazkoak* GARA eta *hunela* GAREÑO *iragan gaitzek* aitzinat (Ibid. 195-17), *bethi* DIRA *zerbaiten eskas, hartzaren eta oraren umeak* DIREN *bezala* (Ibid. 300-28), *itsu* ZARA, *erho* ZARA, *nahasia* ZARA... (Ibid. 299-19) *ta hasseŕe* ZARENEAN (Ibid. 299-23). Leizarragarenak dira beste aukerak : *ethofi* GARA (Mat. II-2) *ta bateyatu izan* GAREN *guziok* (Rom. VI-3) eta *Jauna, on duk gu hemen* GAREN (Mat. XVII-4); EZTIRA *bortz paŕa-xofi* bi *dirutxotan saltzen* (Luc. XII-6) eta *partitu* DIRENEAN (Paradisuz...) eta *erorten* DIRENAK (Ibid.) eta abar. Sauguisek bere erlan zaharretan eztitu *gara* *ta zara* adizkiak bein ere aipatzen; *dira* *ta diren* bai: 160-garĕnean *Haurak bihi laŕi* DIRA eta 63-garĕnean *zamariak ioan* DIRENIAK, *establia zeŕa*. Oihenartek ere *gara* *ta zara* ez, atsotitzetan beintzat; *dira* batean soilik, bestean alkartitzen bat (conjuntivoren bat) gaineratuz. *Bago erorira*, dio 64-garĕn atsotitzean, *egurkari guziak laster ari* DIRA eta 115-garĕnean *ditxak bi aurhide, on eta adiskide; desditxak oboro*, DIREN *gauzak oro*. 72-garĕnean *batzuren gatzontzian ere haŕak sortzen* DIRA eta 521-garĕnean *hassak direnean elge ezkontgeiak, nekearenak dirate ezteiak*.

III. Len esan dudanez, nonnai dantzuzkigu Bidasoatik aronzko euskalkietan auen antzeko adizki epen-tesisdunak, indicativokoak izanezkerok. Imperativoan *ta subjuntivoan* ere beste orduz, idazle zâr auen egunetan, eriak erabiltzen zituen. ¿Orain ordea baote? *Morfologia Vasca*-ren 519-garĕn orĕaldean irakur diteke *izan* eta *ukan* aditzak lenago zituzten adizki imperativo *ta subjuntivokoak* orain galduak dauzkatela. «Ya las flexiones de imperativo y subjuntivo que leemos en viejos autores *naizan* sea yo, *aiz* sé tú...

no las oímos ya, sino que en su lugar el pueblo pone el verbo *izan* en infinitivo, como cualquier verbito derivado *zoratu*, *umetu*, *luferatu*... agrupándole con al auxiliar \**edin*. *Izan nadin* sea yo, como *umetu nadin* hágame yo niño; *izan adi*, *izan bedi*, *izan gaizan* «sé tú, sea él, seamos» como *ken adi*, *ken bedi* quítate, quítese, etc.»

Adizki zar aien artean maiz ageri da emen azaltzen ari geran epentesis au. *Izan*-en imperativoa bizkaieraz onelakoa zan : *naizan* sea yo, *aiz* sé tú, *biz* sea él, *garean* seamos, *zara* sed, *bira* sean. Bayona-aldean beñiz *naizen* edo *nizen*, *aiz*, *biz*, *garen*, *zara* ta *bira*. Irugarén adizkiak—*biz* ta *bira*—luzaroxeago bizi izan ziran. Besteak, zâren artean ere, laster geratu ziran indarga ta ilik. Oihenartek 543-garén atsotitzean *Aiz kortès*, dio, *AIZ kortes guziekin eta nabasi gutirekin*, sé cortés con todos y familiar con pocos. Leizarragak ostera *aiz* oñi lenengo bi adizkien azkenki *n* gaineratu zion. Beste onenbeste egin zuen Axulañek *zara* adizkiatz. *AIZEN adiskide* dio Leizarragak «sé amigo, reconcíliate» (Mat. V-25), *AIZEN han nik dañakeadano* sé allí (estate allí) hasta que yo diga (Mat. II-13). Axulañek *zu ZAREN ona* vos sed bueno (GERO 1.<sup>a</sup> 568-26, 2.<sup>a</sup> 566-26), *ZAREN handi edo ñipi* sed grande o pequeño (1.<sup>a</sup> y 2.<sup>a</sup> 397-24), *ZAREN beldur* tened miedo (Ibid. 299-17), *ZAREN prestu, euzu konzienzia ona* sed noble, tened buena conciencia (Ibid. 444 edo 442-16).

IV. Erara datorkigun izaki edo gauza polıt bat oartu dut Axulañen liburuaren lenengo bi argitaraldien artean. Lenengoak bi aldiz dakar imperativo zâr eder *bira*, erderazko «sean». Idazki eder hura bigañenez argitaratu zuenak, *bira zer zen etzekialako*-edo, *diren ezarri* zuen bere ordeaz. Axulañek *eta hala BIRA iraganak*

*iragan*, Axular-ordeak *eta hala* DIREN *iraganak iragan* y así las cosas pasadas, pasadas sean (GERO ta GEROKO GERO 126-24). *Diren* au subjuntivo-gisa Axularék berak ere erabili zuen: *ezta afazoin lainkoaren kontra ibili direnak, hemen baino gehiago, bertze munduan ere* DIREN *bardin...* que sean iguales (GERO 1.<sup>a</sup> 614-27). (1)

V. Axularék bezalaxe egin zuen Leizarragak ere *izan*-en imperativoaz: batean *biz* ta bestean *den*, batean *bira* ta bestean *diren* erabili. *Biz zuen hitza bai, bai* sea vuestra palabra sí, sí (Mat. V-27), *EZTEN han habita dadinik* no sea (no esté) allí quien habite (Act. I-20) (2); *irakasten ari dena, DEN instruccióne emaille* el que se ocupa en enseñar sea el que dé la instrucción (Rom. XII-7); *BIRA zuen gēfuneak gērikatuak* sean ceñidas vuestras cinturas (Luc. XII-35), *emaztedunak ere emazterik ezpalute bezala* DIRADEN también los casados sean como si no tuvieran mujer (I. Cor. VII-29).

*Refranes y sentencias*-en idazlearen eta Oihenarten *aiz* imperativo zaña eztute ez Leizarragak ez Axularék. Biak *aizen* erabili zuten *aiz* órén ordeaz, lentxeago ikusi dugunez.

¿Inon baotedarabilzki ériak gure egun auetan *biz* ta *bira* zâr eder auek? Otoitzen amaierako *Amen* erderazko «así sea» dela kristau-ikasbidean ikasi ezpalute ¿zein giputz ta napaék otelekike *Alabiz*-en azken izkaitxo ori zer den? (3)

(1) Bigafen argitaraldian 616-27 eta 23.

(2) *Ezten* onen ordeaz *ezplz* dakarklgu Oihenartek: *bere ahal dena* EZVIZ *bertzeren* (91-gafen atsoitza).

(3) Bizkaierazkoetan *alabiz* ezta ageri. *Alan izan dedila, Amen* eta *Afen bai* dira ango kristau-ikasbideetako *Amen*-ak.

VI. Adizki polit oni Axulařek bi zentzun eman zizkion. ¿Nork eztaki erderaz «ya esto, ya lo otro» bezala «sea esto, sea lo otro» esan oi dugula? Frantzesez ere berdin : *soit qu'il le fasse, soit qu'il ne le fasse pas* sea que él lo haga, sea que él no lo haga. Axulařek erderazko bata zèin bestea edo biak—*sea ta soit*—buruan zituela, euskerazko *biz*, adizki izatetik conjunci3n disyuntiva izatera eramanez, esakeratxo bitxi onetan zentzun onezaz atera zuen : *konberti bedi, onera bihur bedi, nahiz dela arimak egiterakonan, biz hats bakhotxean dagoenean eta orduan ere enzuna izanen da* conviértase, viértase a lo bueno, sea al separarse el alma, sea cuando está en el último (único) aliento y aun entonces será oído (GERO ta GEROKO GERO 196-11).

VII. *Gara*-tik, ikusi dugunez, imperativotzat *garean* soñarazi zuten gure aurretikoak, Bayona-aldekoak *garen*. Euskalki onezazko subjuntivoko adizki zařetan ere sarkizunezko (epentético) *e* berdin ageri da. Leizarragak : *on duk gu hemen* GAREN es bueno que estemos aquí (Mat. 17-4) eta *reprobo* GARENTZAT para que seamos réprobos (II. Cor. 13-7). Axulařek : ETZARELA *bada zerori zeuretzat hořein etsai handia* pues no seáis vos para vos mismo tan gran enemigo (GERO 622-18, GEROKO GERO 620-18). Len ikusi ditugu beste bi gertari polit, DIRA oin duten *diren* bi : *DIREN berdin* ta *DIREN gaixtoak*.

VIII. *Izan* aditzak, *gara* ta *zara* ta *dira*-ren gainera, baditu *a* azkenkitzat duten beste adizki batzuk ere : *da, za (n), gina, zina* ta *zira*. Lenengo biak eztute bizkaieraz epentesis artzen : *etoři da* ta *etoři zan-etik etoři dala* ta *zala*, iausi *danean* ta

*zanean*, il *daneko* ta *zaneke* esan daroagu. *Gareala* ta *zareala* bezala, eztu inork esaten etofí *deala* ta *zeala*, iausi *deanean* ta *zeanean*, il *deaneko* ta *zeaneko*. ¿*Da* ta *za* oriek monosílabos diralako oteda? Beste irurak *gina*, *zina* ta *zira* Urduliz, Eibar ta Sorauluzen ez, nik flexionario egiteko aztertu nituen beste alde guzietan, geienetan beintzat, *ginean* edo *giñean*, *zinean* ta *zirean*, *gineanean*... eta abar *a* epentesistzat artu ta muñaren (nucleoaren) *a e* itzulirik, esan oi dira.

IX. *Gina* ta *zina* oriek yatoñiz giputzak ditugu bizkaieraz oraintsu erabiltzen asiak, noizbait agertu nuenez (1). Gure egun auetan ere *gintzazan* eta *zintzazan* *ginean* ta *zinean* baino alde geiagotan darabilzki eñiak. Toki batzuetan *i* ta *a ie* esaten oituak diralako—*goñie goñia*-ren ordez—*gintzezan* ta *zintzezan* entzun oi dira. Oñati ta Leniz-aldean *gintzan* ta *zintzan* esaten du eñiak. *Z* pluralizador oñi iguina diote alde aietan. Naiz bat naiz amaika izan, beti diote aiek *daukat*, bein ere ez *daukadaz* edo *dauzkat*; beti *darabilt*, bein ere ez *darabildaz* edo *darabiizkit*. Lenago *gizon bat ikusi dot* bezala, *lau gizon ikusi dot* esan oi zuten; ez beste aldeetako antzera *ikusi dodaz*. Orain gipuzkerazk *ditut*, *dituk*, *ditu*... eta abar esan oi dute; bein ere ez ordea *ikusi gaitu*. *Ikusi gauz*-en ordez beti *ikusi gau*, *z* pluralizador ori baztertuz. Iketazko irabiamenean (en conjugación familiar) nonnaiko adizkietan ageri da lenagoko oitura zaía. Zuketan *etofí nintzan* esan oi dugu, iketan *etofí nintzoan* ta *nintzonan*; zuka *etofí zan*, ika *etofí zoan*

---

(1) Morfología Vasca, 642-10.

ta *zonan*. Iketan edozein aldetan esan oi du eñiak *etofi gintzoazan* ta *gintzonazan*. Ezagun da, beraz, aldi batez zuketan ere *gintzazan* alde orotan esaten zela.

X. *Gina, zina* ta *zira* oriek guxitan darabilzkigu sufijo conjuntivo bage; geñenetan atzizkitzat *n, nean, neko, la, lako...* edo besteren bat dutela. Auñetik *ba-naiz* atzetik *-te* naiz *-de* dadukatenean, conjuntivo bageak direlako, eztute epentesis bear izaten. Leizarragak dio : *baldin gure aiten egunetan izan* BAGINA (Mat. XXIII-30), *zuetarano heldu izan* EZPAGINA *bezala* (II Cor. 10-14), *haragiaren araura ebiltan* BAGINADE *bezala* (II Cor. 10-2). Sauguisek 66-gařen erän zaharëan dio : *Hitzes berzerik behar da, hauñak haziren* BADIRA. *Izan* aditzak galdu dituen adizkiak eztira imperativo ta subjuntivokoak soilik, etorkizunekoak ere galdu ditu.

Atzizkitzat *te* bat artuz eratzen zituen *izan* aditzak etorkizuneko uste auek : *naizate* seré, *aizate* serás ta *date, garate, zarate* ta *dirate*. *Te* atzizki onek conjuntivo ezte lako, eztu edo (egokiago esateko) etzuen ez bizkaieraz *a* ez lapurtañez *e*, sarkizun-gisa, adizki orietan bear izaten. *Gara, zara* ta *dira*-tik eratoñiriko *gareala, zareanean, direalako* bizkaieraz, lapurtañez *garela, zarenean, direlako* orain ere erabiliařen, etorkizuneko *te* oñezaz etziran *gareate, zareate, direate* Bizkaian, ez *garate, zarete, direte* Lapurdin ta Benapañoan eratu izaten. *Espaigniarat ioanen* NAIZATE *zuek baitharik*, dio Leizarragak, iré de vosotros a España (Rom. XV-28),... *ezen gehiagorik ezin* AIZATE *dispenser* pues en adelante no podrás ser administrador (Luc. XVI-2), *harapaturen* GARATE *he-*



*kin batean...* seremos transportados con ellos (I. Thes. IV-17). Oihenartek ere oso-osorik erabili zituen onelako adizkiak : *emaztea har dezana handitarik* EZTATE (no será) *etxean grina gabetarik* (135-gaŕen atsofitza); EZTATE *ungi zerbitzatu, bere mainatareki nahi duena dostatu* (695-gaŕena); 521-gaŕenean *nekearenak* DIRATE *ezteiak* dio, erderaz «las bodas serán incómodas». *Urthearekila, iragan* DATEENO, *kexa ezadila* no te quejes del año hasta que será transcurrido (677-gaŕena). Gramatikalari garenontzat Oihenarten atso-titzetarik edereñetariko bat 524-gaŕena da. Euskerak antzina nonnai eta orain Zuberon bizirik dadukan *te izan* aditzaren almenekoa edo potencial eta beste aditzai dagokien *ke* argi-argi dakuskigu esakune orétan. *Hogei urtetan deus eztena* (el que no es nada a los veinte años), *hogei eta hamafetan eztakiena* (el que no sabe a los treinta) *eta beŕogeiétan eztuena* (y el que no tiene a los cuarenta) *da iagoiti eztatena* (es uno que en adelante no será), *eztakikeena* (que no sabrá) *eta eztukeena* (que no tendrá).

XI. Gure egun auetan *gara, zara* ta *dira* oriek oin dituztela eŕiak Bayonaldean nonnai darabilzki *garela, zarenean, diren* eta auen gisako beste adizkiren batzuk ere bai. Euskalki hura darabilten idazle zenbait ordea, fonetikazko lege au ongi eztazagutelako noski, eŕiaren oin-adizki *a*-dun oriek utzita, bestela ari *dira* idazten. Nire uste au sendoago ta sinisgariago egiteko, azkenen argitaratua izan den *Eskualduna* asteroko papera irakuŕi dut. An batzuk, Axularék eta Oihenartek eta Leizarragak bezala, *gara* ta *zara* ta *dira* idatzi oi dute. Beste norbaitzuk beŕiz *garela, zarenean* ta *diren* orietatik *gare, zare* ta *dire* aintzat

eta ointzat artzen dituzte. Guziak, lantxo onetan ikusi dugunez, *e* ori epentesis dela yakinik, eñiaren *gara*, *zara* ta *dira* artuko balituzte, egokiago, legezkoago ta euskarazkoago litzate beren idazkera.

Bizkaieraz deklinaziotik *e* epentetika kendu nai izan zuenak, eñiaren *okotzean* ta *suñetik* eta *ileko okotzan* ta *surtik* ta *ilako* idazten asi zenak berak, aditzak duen *a* epentetika ta bere aurreko *a*-ren itzulpena kendu nairik, eñiaren *gareala* ta *zareanean* ta *direan* alde bat utziz, *garala* ta *zaranean* ta *diran* legezkoztat artu zituen. Gaitxo au ulerterazago izan dituen, len Bayonako *Eskualduna* bezala, orain Bilboko *Euzkadi* aipatuko dut. Lan onen ziriboñoa egiten niarduela, egun artakoxe ofialde batean, il onen bederatzigaren egunekoan, *Negar da bañe* izentzat duen idazki polit bat irakurri nuen. Idazleak, bizi den eñiko fonetika aintzat artuz, beste zenbaiten artean fonetismo auek darabilzki : 1.<sup>a</sup> *o* ta *a* beti *oa* egiten du, Batasunera bidean gabilzanok legetzat artua dugun arauz : *geroago* ta *barrurago*, *augazil* moduzkoa, *augazil yasekoa* (aurreko *y* ta *guzi*), *besoak*... eta besteren bat *dira oa*-dun itzok. 2.<sup>a</sup> *e* ta *a*, Batasunzaleok dakuskunez, eztira idazki ofetan *ea*. Ona emen gertari batzuk : *sarjentu-legia*, *batian au* ta *bestian au*, *umiak*, *gazitai*, *izentetan zanian*... eta abar. 3.<sup>a</sup> *i* ta beste vocal baten artean idazlea bizi den urian *dx* esan oi dutelako ta *dx* ori itsusi erizita edo, Bizkaieraz inon ere esaten eztugun *ye* aintzat artuz, *axekiya*, *uriyan*, *biyar San Baleriyo geiyena*, *Euskalerriyetako augazillak*... eta orien antzeko beste itz asko ta asko ditu lan polit ofek, arauzko ta Batasunera-bidearen erdi-erdiko *ia* bazterean utzirik. 4.<sup>a</sup> Nire

lantxo onetan azalduko fonetika bizkaierazko, noiz-nai ta nonnaikoari yaramonik egin bage, lan polit onetan esakera auek ezafi ditu idazleak : *orain urte-txuak* DIRALA, *urenguan be an izaten* ZIRAN mutil *barrabanok*, *agertu* ZIRANIAN, *gorda-zibillak* ZIRALATA... eta besteren batzuk. Gernikan esan oi direlako, fonetika particular baizik ez tiren *legia* ta *batian* aintzat artu dituenekero ¿zerengatik ezoteditu lan polit irakurgari ori egin duenak aintzat artu, Gernikan eriak beretzat artuta dauzkan *direala*, *zirean*, ta *zireanean*? Baditeke berari edo besteren bati erantzun au bururatzea: *a* bati beste *a* bat gaineratzea cacofonia baizik ezta, eta aurreko *a* e itzultzea, txikitan esan oi genduen bezala, naste-boraste, azak eta naste. Naiz *kako* naiz *mako*, bizkaierazko legea da *oa ea* ogite ori. Ogeitik gora ziran Flexionario bizkaino egiteko aratu ta aztertu nituen eriak. Bakar batzuetan, Bakioaldean, eta beste nonbait artu nituen *dirala zirala* ta auen antzeko adizkiak, beste guzietan *direala* ta *zireala*; batzuetan *ea ia* eginez, *diriala* ta *ziriala*.

Au gora-bèra, legearen gainetik ibili nai duenari onetxen antzeko beste fonetika-lege batek aurpegi emango lioke. Bizkaieraz mugaitz edo artikulu eza-gunena, *a*, beste *a* bat azkenean duten izenai gaineratzean, izenarena *e* egiten du edozein erik. Legetxo au Zégaman ta Burundan ere bizi da. *Alba*, *arèba*, *neba*, *gona* ez tira bizkaieraz eta bi alde orietan, beste euskalkietan bezala, *alaba arèba neba* ta *gona* esaten, «la hija, la hermana, el hermano, la saya» adiarazteko. ¿Nola ordea? *Alabea*, *arèbea*, *nebea* ta *gonea*. Len itarantzun denez (según antes se ha indicado), *zireala* ta *direala* ta *gareala* cacofónicos badira, *alabea* ta

*añe*ba ta *ne*ba ta *gone*a eztira eufónicos. Aiek autsi bear badira, auek ezin osorik utzi litezke : autsi auek ere.

XII. *A* ta *a* *ea* egitea bizkarierazko agots-legea (ley fonética) dela esan dut. Eztira ordea, bizkaieraz ere, *a* ta *a* beti *ea* izaten. Emendik datorchio, uste dudanez, agots-lege oni ulerkizun edo semantica-kutsua. Lege au ezta belafiak eskaturiko fenómeno físico soil soil. Ezta, *aa* ori ebaki edo oguzi ezin duelako, agoak berak eskatzen digun fenómeno fisiológico biloiza. Geixeago da. Adizkietan eta izen mugatuetan (en flexiones verbales y en nombres determinados) baizik ezta lege ori bizi. Lege au nolabait ulerlegea (semanticazkoa) ezpalitz, agotsezkoa (fonetica utsezkoa) bagendu, *a* ta *a* edozein itzetan *ea* izango lirake. Zazpi atzizki (sufijos) dazaguzkit, *a* aurretik dutela, itz baten azkeneko *a* yo ditzatenean, bizkaieraz ere, *ea* soñarazten eztutenak. Ona emen atzizki auek zeintzuk diren : 1.<sup>a</sup> -ADA. *Zarta* ta *zapla* ta *Zamakola* bezalako itzai gaineratzean, eztugu *zarteada*, *zappleada*, *Zamakoleada* esaten. *Zartada* (varazo *coup de baguette*), *zaplada* (bofetada *gifle*), *Zamakolada* (insurrección de *Zamakola*) esan oi dira nonnai bizkaieraz ere. 2.<sup>a</sup> -ALA. *Atera* ta *yosa* (soportar *supporter*) bezalako itzai atzizki au gaineratzen zaienean, *atereala* ta *yoseala*-ren ordez *ateraala* ta *yosaala* esaten dugu. 3.<sup>a</sup> -AGO. *Gora* ta *bera* ta *atzera* ta *añera* lagun dituela inork eztu *goreago bereago atzereago* ta *añereago* esaten. Edozeinek *gorago berago atzera*go ta *añerago*. 4.<sup>a</sup> -AR. *Bergara* ta *Zornotza* naiz *Gernika* ta *Araba* bezalako itzak eta atzizki au alkañi itsastean *Bergarar*, *Zornotzar*, *Gernikar* ta *Arabar* esan oi dugu; ez ordea *Bergarear*, *Zornotzear*, *Gernikear* ta *Arabear*. 6.<sup>a</sup> -ARI. *Pelota* ta *dantza*-tik

*pelotari* ta *dantzari* sortzen zaizkigu, *peloteari* ta *dantzeari ez*. 7.<sup>a</sup> -AREN. *Lotsa* ta *gura*, mugaitzarekin *lotsea* ta *gurea* badira ere, atzizki onezaz ez tira *lotseafen* ta *gureafen*, *lotsafen* ta *gurafen* baizik. Onezaz gainera mugaitzak (artikuluak) berak ere ez tu aurreko *a* bi aldiz beintzat ez tu *e* itzultzen : «las hijas, las hermanas, los hermanos (de mujer), las sayas» bizkaieraz ere ez tira *alabeak*, *arabeak*, *nebeak*, *goneak*. *A* ori singular ta *k* egilea (afrivo) direnean, bai : *alabeak baietz dino* la hija dice que sí; *arabeak ezetz* la hermana que no... eta abar. Gauza bat non dagoen azaldu nai dugunean ere, *a* mugaitzak ez tu aurreko *a* aldatzen. *Gonan* en la saya, ez tu *gonean* esaten. Markinan, gazte nintzela, ikasi nuen-esakune batek auxe dio : *prakan prakan eztago gizona* no en todos los pantalones hay hombre *il n'y pas d'hommes dans tous les pantalons*. *Praka* pantalon da, *prakea* el pantalón; baina los pantalones eta en el pantalón ez tira *prakeak* eta *prakean*, *prakak* eta *prakan* baizik. Markinan bertan bi *a* entzuten ditugu: *prakaak* eta *prakaan*. Berdin egin oi dute beste onelako itzetan ere. Markinako semeak guretzat *Markinañak* dira; berentzat ez : berentzat *Markiñañak*.

Bi anomaliatxo aipatu ditut len, nondikoak eta zertatikoak diren azaldu bage. Lenengoa: *ak* atzizkia, singular aciivo denean, aurreko *a* e itzultzeko gai da (*arabeak esan dau*) eta plural denean ez (*arabak esan dabe*). ¿Anomaliatxo au zerengatikoa dugu? *Ak* ori, plural denean, beti tonu bagea delako oteda? *Praka bat* eta *prakak* (*ak* bera dator, atoniara), *gauza bat* eta *gauzak*, *aska bat* eta *askak*. ¿Atonia au otedugu anomaliatxo oren ituria?. Bigarena: *izara* (sábana) tik *izarea* la sábana bai ta *izarean* en la sábana ez, *izaran* baizik; *prakea* bai ta *prakean* ez,

*gauzea* bai ta *gauzean ez*, *askea* bai ta *askean ez*.  
Anomaliatxo onen iturburua non da? Buruak txinpar-  
txo bat (inharfo bat) ere eztit eman nai.

Azkaingo lanfoaren yaraipen luzexko oni emen  
amaia eman nai diot, urango ilerako Euskaltzainai  
eritzi bat eskatzea utziz.

Bilbon 1930<sup>ko</sup> Abenduaren 10<sup>an</sup>.

AZKUE, *apaizak*.

---